

2. AUGUSTE AGUERRE, daunatua, edo hezur zuzentzailea



Daunatura hezur zuzentzaile
Auguste Aguerre-kin

2.1. BERRIEMAILEAREN BIZI GORABEHERRAK (itzulpena) (1987.ko Irailaren 7a)

- A.J.** Ez du balio erregistratzeak
- Tx.P.** **Nahi duzuna esan**
- A.J.** Auguste AGUERRE naiz...Orain 86.urteak ditut betetik, Sen Gladi-n, Biarnon jaiotako euskalduna naiz edo xarnegoa nahi bada.
- Tx.P.** **Gaitz haundirik izan al duzu, haurtzaroan?**
- A.J.** Ez dakidanez ez.
- Tx.P.** **Ikasketak non ta zer mailetaraino.**
- A.J.** Gaixoa 1922. urtean Parisera joan nintzan masaiaren ikastera, begira hemen nire diploma "Rue Cujas"eko eskola ospetsuarena da eta hortan Massage médical, sportif eta pédicure" egin dezakedala erraiten da. Gero, soldauzkan Bordeleko San Nikolas ospitalean lanean ipini ninduten kutsudunekin ta zauri zornatueta (orduan, usainaren ez senditzeko hasi nintzen erretzen)
- Zerbitzuaren garaian eta Pariseko Armadaren eskola batera "Val de Grâce" eritegi nagusira bidali ninduten. Horiek oro, paperak dira, orain beharrezkoa, baina ikasi dudana gehiena aita daunatuaren gandik izan da, eta hori mendez mende datorkigu.
- Tx.P.** **Beraz zuk ez zenuen denborarik galdu soldauzkan eta gerla garaian?**
- A.J.** Gerla garaian ez nintzen preso egon orduko aita familiatzko nintzen.
- Gurekin gertatzen dena hauxe da, oraingotasuna onartzen dugula, baina aintzina gure jakituria eta dohainak gordetzen. Bai, masaiegile hutsa izan nintzen Arjentinan hamabi urteez (eta han geratu zait anaia eta han bizi zaizkit ilobak). Gero ezkondu ta 1940, beste urte bat anderearekin

pasatu genuen Arjentinan. Honera itzuli ginean ez nintzen gehiago masaiegile hutsa eta aintziñako moduan, ibili nintzen jendeet ordain-sari askea utziz, daunatuena gisa.

Tx.P. **Masaiegile legezko zara halere?**

A.J. Bai Paueko ofizio ganbaran matrikulatua naiz eta 1946.an izen berria ta diploma berriak eman zituztenean, hogeit lehen ardietsi nuena baietsi zidaten. Jendeek diote daunatua naizela eta ez zait batere gaitzi, ezen masaiegile eskolatan baino gehiago baitakigu eta jendeek hori baitakite ere.

Tx.P. **Eta euskara?**

A.J. Ez dut ondo menderatzen nahiz, lehen Tabailan nengoenean eri gehienak euskaldunak izanki. Naski jakiteak lagundu nau. Haur ginenean bakantzak Euskal Herrian igarotzen genituen eta jatorrizko etxean, aitonaren etxean uda igarotzen genuen laborantzako lanetan eta izeba neukan frantsesez fitsik ez zakiena. Beharrez euskara ikasi nuen. Gero Arjentinan ez nuen hainbeste praktikatu. Orain jende guztiak frantsesez ari zaizkit, nahiz bearnesa ta gaztelania dakizkidan ere.

Tx.P. **Ezkondu al zinen? Haurrik eduki?**

A.J. Bai, Germaine-kin Tabaila-ko neskatila batekin ezkondu nintzen, baina berandu 1937. urtean; halere bi seme ta alaba izan genuen.

Tx.P. **Beste lanbiderik izan al duzu?**

A.J. Ez, beti hortan ibili gara apur bat. Bakarrik ezkondu ezker ta andereak etxalde ederra zeukalako laborantzian erdizka nenbilen, baina garai batean Arjentinan, hamahirur urteez masaiegilea izan naiz.

Tx.P. **Zenbat urteez osoki edo erdizka ibili zara lanpide hortan?**

A.J. Aitarekin goizik hasi nintzen etxean, eta ikasketatara joaiten, bazuen gutxienik sei urte ikasten nenbilela aitarekin daunatua lan, hamalau urteetan hasi bai nintzen. Denetara, 65 urteez lan hau egina nago.

Tx.P. **Zer deritzaizu zure lanaz?**

A.J. Nere artea dohaina da, ta gure sendian denek daukagu gutxienik aitonaren aita ere daunatua zen, aitarenen senide guztiak, anaia-arreba guztiak sendazale; geu bost ginen eta denak "daunatuak" batzuk masaia ikasiak. Gero jarraitzen du, baina alabak ez du praktikatzen eta bi semeak fisioterapia lanean dabilta. Bata Joanes Aguerre Maulen, bestea Baionan. Dohaina ez da eteitan eta urrundik dator dohaina eta naski jakituria ere.

2.2. ELKARHIZKETAREN GIROA

Ezkozera noa Daunatu baten ikustera, bai ezur zuzentzaile baten herrira noa. Ezkoze, Xarnego herrira da, horrekin esan nahi da, lau erresumeren mugan zegoela aintziña, Nafarroa, Biarno, Zuberoa ta Frantzia (Gaskoña); hain zuzen Ezkozeko hauzotegi bati gaur **Lauhire** eta aintziña euskal

izenez **Lauhiri** zeritzaion Bidekurutze izateaz kanpo herri horrek, biarnesa izanki funtsean, euskaldun biztanleak eta erdi-euskaldun ta erdi-gaskoin diren "Xarnegoak" baditu. Gure berriemailea euskaraz apur bat, gaskoinez aski ondo, gaztelaniaz ta frantsesez oso ederki mintzatuko zaigu, Xarnegoa da.

Haren etxea edo hobeki esan haren anderearen etxea - berea erre bait zaio - XIX. mendeko "maison de maître" edo nagusi-etxea da, oso haundia, harrizko leiho ta ateeekin eta hain zuzen atalarriak dion moduan Lauhirit, deiturako norbaitek eraikia. Irailako egun zoragarria da, beroa, hiruretara-ko hor nago, lauretan kontsultak hasten direlako eta uste baitut jende gutxi izango dela platanondoan itzalean zain, etxeari begiratzen diot, teilatu gorriko etxea Biarnoko zelaie-tako ohituraz, leiho guztiak itxita bero delako ta herriko ekan-dura bitxiuz. Badakit telefonuz ikasia nagusiak bere bazkal-
loa egiten duela ez baita oso gaztea.

Elkarrizketa bereizia egin nahi nion, baina bere senarraren osasunaz asko ardurutzen den, andereak esan dit, astean bi arratsalde bisitak egiten zituela eta hortik kanpo bakea nahi zuela; gero laister ulertuko dut - jendeek esan zidatena askazgoan - oso zaharra dela. Hirur et'erditan txilina jo gabe ta norbaitek egin moduan etxean sartu naiz, sarrera zabal eta luzea dirudi lparaldean medikuek ohi duten kontsultategi ederraren sarrera. Gero jakin dut anderea nekazari aberats baten etxeko prima dela ta harena dela etxe hori.

Hinki hanka eta banaka gaixoak sartzen dira, oin anka, belaun, beso minekin direla jakingo dut. Ni gaixoa ez naizen ezkerro ez eta kolpatua baina begiluzea, azkenik pasatuko naiz. Halere, hor nago eta ez naiz joango, gogoan dut zain egonaz ez dudala denborarik galduko. Egia da -frantses kultur giro benetakoan gertatu bagina - ixiltasun haundienean edota elkarriz hitzegin gabe geratuko ginela, bakarrik binaka etorriak beren artean ahapeka hitzegile; hemen ordea pire-neotarrekin gaude, laister badakit, hirur euskaldun eta bi biarnes daudela eta haiekin euskaraz hitzegino dut.

Gaixoak leku askotatik datoz, Donibane Garazi, Mendiondo, Donapaleutik euskaldunak, Oloron ta Tabailatik bearnesak.

Gaixoen aho batez eta jakingabe begiluzea naizela, Agerre jaunaren gorai-pamena egiten didate baita haren arre-barena "daunatua" ere dena, eta Donapaleuko haren lehen-gusu den Etxeparebordarena.



"Lauhira", Auguste AGUERRE jaunaren etxea, Ekxozen.

Giro lasaia dagoen ezkerro gure artean, eta elkarhizketan denek parte hartzen dutelarik, ni entzule, eta soegile naiz hor, gaixoen artean hirur gizon ta bi emazte daude. Gizonezkoek beren lanean gertatu "erorte" baten gatik eta anderezkoak beren ahultasunaren gatik, azken horiek beste meskaburik izan baitute, eta nahigabe haietan beti Agerre-ren gana etorri.

Adinen aldetik hogeitahamar, berrogeita hamar urteeta-koak dira, gero jakin dut igande goizean Agerre-K ikusi duela 20 urteetako gazte bat automobila ixtripuz kolpatua larun-bata gauean. Gero esango dit ere kirolzaleek lan ematen diotela noizpeinka. Egun hartan, behintzat, ez zegoen ez oso gazterik ez oso zaharrik, eta berdin egun hartan denak ezkonduak ziren. Hain zuzen gizonezkoak beren emazteekin zeuden hor, berek, agian ezin zutelako automobiliik gidatu eta Agerre-ren, oraingo etxea, herrikka batean baitago eta herri-tik apartexka, Ezkozetik Bastidarako bidean, eskuinetik lehe-na.

Bai etxe hori, lehen Tabaila-n (Erdiharoan euskaldun izandako herrian) bidekurutze eder berdina daukate, Oloron-Donapaleu-Maule-Orthez-en erdigunean, erdibidean. Hiritik erdibideetan izatea eta halazere aski bazterrean, bere aban-tailak baditu eta izango ditu.

Ni, egiaz, bi gauzetara etorria naiz, lehenik Agerre jauna arartekoa baita, esan nahi baita daunatuaren ofizioa ikasi duela, eta gero masaia diploma Parisen, bigarrenik bere aita, daunatua soila izan denaz mintza dakidan, eta aitaren entzu-tea eta fama euskaldunek badakite, bai Izurako gizon hura baita haren anaia ere. Pixkanaka konturatzen naiz dinastia bat dagoela hor eta Agerre guztien artean jendea nahastu egiten dela.

Oiraintxe, gaixoeekin nago eta lotsarik gabe bakoitzak kon-tatzen dizkit bere minak. Bi euskaldun zuzenka etorri dira eta ez dute mediku baten ikusteko gogorik haintzat Agerre ez da masaiegilea, daunatua da ta batek euskaraz esaten didan bezala "hala duzu daunatua erran nahi baitu dohainduna" (Garaziko andereak) Aurretik berek eta askaziek izan dituzten lorpen ederregatik fidantza osoa daukate gizon hortan "bertzetara joan beharrik ez duzu" (Mendiondoko gizonak) "semea ere aski trebea dizu, bainan ez du aita balio" (Donapaleutarrak). Bearnesei esaten diegu zer den gure solasak eta batek dio "Semeak ez nau artatu nahi izan" Gero ikusiko dugu, aita ere ez duela egingo, kasu hori haren lan mugatik kanpo delako.

Lehen euskaldunak zainhauzia, oin-okertua baizik ez du; bigarrenak bere lekuetatik ezurra ateratua (anburatua), horiek azken aldikotz datoz eta ongi ibiltzen dira. Beste kasuak zai-lagoak dira, Garaziko andereak holako ziatika - lumbago edo ankamina dauka eta handik ateratuko da, esango dit askoz hobeki eta atz puntekin bakarrik bizkarrezurreko leku batzu hunkitu dizkiola, beste gabe.

Bearneseetan bata oin-okertua dauka, baina larunbatean gertatu eta gaur asteartean azaltzen da Agerre hasarretuko zaio pixka bat eta artatuko du ondoko egunentzat atsedean aholkuak emanaz. Beste biarnesari Agerre-k ez dio ezer egingo, jadanik klinikatik pasatu delako, igeltsua ipiñi diote-lako: bi gauza ditu ezur hautsiak eta ezurrak beren giltzetatik ateratuak. Erradiografia gabe etorri da eta esango dio joan dadila klinikara, operatu beharra dela (gero Agerrek esango

dit holako kasuak aitak artatzen zituela, ez baitzen besterik diru gutxi zeukatenentzat, baina berak ez zuela hauzirik izan nahi bere jakitatetik kanpo sartu zitekelaokan)

Gero bakoitzak legezko-barberuen lan txarrak aipatzen dituzte. Biarnesak, aintziñako Lafitte barberu fama txarrekoaz mintzatzen zaigu, bai, behin auzoko gizon bat semearekin joan zitzaion ikustera ta harek galdetu dirurik bazeukanez; hura galderaz harrিতa dudan egon aski bazuen ez berealaxe barberu oker harek (kirurgilari izena merezi ote zuen?) "Zoaz nere klinikatik zure semearekin, ez dut operatuko" eta gizon haren semea peritonitis batez hil zen. Beste bearnes gazteak, berriz, Barkoixen ezagutzen duela gizon besomotza, berebil baten leihoan ukalondoa ipini zeukan batean kolpatua; delako Lafitte horrek igeltsua ipiñi eta kendu ziotenean azpian gangrenatua eta harrak jarriak ziren, orduan besoa moztu.

Errez sinesten ditut gizon horien esanak eta garaiko serora erizaintsa gaitasunik gabekoen berriak, urte askotan ama gureak, Maddalen Karrikaburu sortzez, bai amak anka hautsi baitzuen Zuberoan 1940.an eta zauri zabala zeukalarik, Lafitte-k gainetik igeltsua ipiñi. Amak lortu zuen igeltsu haren kenaraztea izugarriko mina eta sukarra zeukaikoa eta igeltsupean irispela zeukala aurkitu. Orduan, entzun zuen, lotan zegoela bezala egiten zuelarik, entzun bai Lafitte esaten serora bati, amari anka zangoa belauetik goiti moztu behar zitzaioela. Amak orduan hasarrez sekulan zangoa mozten bazioten, gure aitarekin izango zituela istilluak eta ez zioten amari zangoa moztu.

Gaur ordea, dio, bearnes batek gure alaba gazteak zangoa hautsi du eski egitean, tibia eta peronea, biak; aitak ikusirik alabaren itxura, eta haren ankaren forma esan zion igeltsi ipintzaileari ez ote zen hobe lehenik ezurraren zuzentzea; harek erantzun bere ofizioa bazekiala ez zuela aholku beharrik. Igeltsua kendu ziotenean, anka oker eta erren (maingu) geratu zen neska; gero Salies-era eraman zuten Le Tournelle Pariseko kirurgilari-erakasle ospetsuaren gana eta harek Parisera eroan, anka berriro hautsi eta burdin lokarriekin zuzendu.

Beste bearnesak, kondatzen digu nola Oloroneko klinikan ezurrak zuzendu gabe igeltsua ipini zioten alabari eta hura oina okertuta geratu eta nola Agerre daunatuak zuzendu zion eta berriz ongi ibiltzen den. Klinikara berriz azaldu zenean gurasoei kirurgilariak esan zion, "lan ederra egin dugu" "Ez jauna oina oker utzi zenuten alaba eta Agerre jaunak du zuzendu".

Balirudike jende horiek fidantxa gehiegi ta propaganda hutsa egiten dutela, baina gure askazien lekukotasunak baditugu (bi lehengusu) baita adiskide batena Aña Durruti, Hazparneko P. Xarritonen anderea. Beste satisfecit beharra balu ere, Atarratzeko farmazialari, eta medikuarenak bildu ditut.

Adeitasunez, azkena igarotzeak hainbeste ekarriko zidala ez nuen uste, baita Mendiondoko jaun horrek dinastiaren leinuaz eman ohar batzuek nolako jakingarritasuna zeukaten (bai Mendiondoko jaun horrek bi alabak pilotari daukatzan ezkerro Larralde izango). Bai jende horiek gaurkotatzen onak (nola belauetik meniskeren operazioa egiteko egun bakoitzeko ospitalezea eskatzen duen, nola Salies-en kolpatuen heziketa ondo egiten den); denbora berean, gaurko-

tasunen akatsak ikusten dituzte eta gehienek gaitz txipientzat ez dute segurantzaz dohainik dirudian legezko-sendakuntzaz abusatzen, batzuk atsedean, ohe, aspirinaz artatzen, gehienak tisana eta atsedeenarekin.

Egia da aintzina derrigorrezkoa zela daunatu baten gana joitea -aberatsa bakarrik kirurgiaren ordaintzeko gai baitziren - eta orain kontzientziatzeko urratsa dela ez herri-ohitura hutsa beti; gero Agerre jaunaren ospea hain zabala da: eta horrek, harremanak eta ofizioa mantentzen, orain legearen estalgia hartuz.

Ondoko elkarhizketa, apur bat euskaraz eta gaztelaniaz, gehien bat frantsesez izan da; nere ohituraren aurka eta ez luzatzearen, Agerre Jaunaren baimenez euskara batuan ipiñi dut.

Nire txanda, nire aldia etortzen denean, Agerre jauna pixka bat harrিতa da, ikusten naualarik kaxa batekin. Zer ote naizen bidajantea edo? Eta gero jakingo dut, aspalditik deituen arren anderea beste norbait - gure etnologia taldekoa - hortik igaro zela eta gero suhiak ez zuela aitagiharreba abisatu nere bisitaz. Sarreran entzun nien esaten jendeei gizon ona zela baino batzutan gogorra. Halere adeitasun haundiz atotsi nau, eseriarazi, horregatik adieraziz ez zitzaioela behar bada zintan hartua izatea gustatuko.

Gero bera hasi zait galderak egiten, zertara netorren? Non jaioa nintzen? Nongoak ziren nere gurasoak? Zer ofizio neukan? Eta zertarako pentsatzen nuen bildutakoa erabiltzea? Nork igorri ninduen? Izena paper batean eman nezaiola



Auguste AGUERRE Jauna 89. urtean. (1992)

la...(zuzenbide ta guzti eman nizkion). Bai, gehienetan asko ondo ezagutzen dudun berriemaileekin nabil, baina hor, mundua apur bat kurrututako gizona izanki, azkenean lasaitasun osoz erantzungo dit; gero berak eta bereiziki andereak gure sendiko batzu ezagutzen dituztela konturaturik, gure elkarhizketa aperitibo baten inguruan bukatuko da, baltzuan ditugun lagun eta adiskideez mintzo.

Joañen naizenean berebilera laguntzen nau, illuna da, hirutan etxe hartara iritxi nintzen eta zortzitan etxeko jaunaren laguntzarekin, handik irteten naiz, uzta ona bildurik eta etxera sartzen. Zortzi orduren lana eta egin ehun ta hirurogei kilometroez ez dut garbairik, eguraldia beti ederra da, eta ez naiz gaixo.

Aperitibo edaten genuelarik, gaztelaniako artikulua erakutsi dit, "armaharria" nola zuten Agerre Izurakoa jakiteko, euskaldun batek Arjentinan idatzia; gure gaiarekin ez dauka naski asko ikusteko salbu eta erakusteko Erdi-Haroan Agerretarrak bazirela Izuran jakiteko baizik.

Beste lan jakingarri bat erakusten dit, euskal testu baten frantses itzulpena, artikulua *Gure Herria*, Baionan 1957, 5. zbk. agertu zen Agerre daunatuei buruz eta hor dinastia horren aintziñatasuna Nafarroako Korte batean gertatutakoekin fundatzen du, alegia aurreko Agerretar batek Izuratik Iruñara joan zela Erregiñak matrailaren zainartatu bat zeukalako. Ipuina pollita da baina idazleak - eta hor frantses eskolaren ustelkeriak agertzen ditu - kontatzen digu eta Izura Nafarroa delarik eta Iruñara doala "Frantziako muga igarotzen duela" eta bekaitzez ihes egitean "pozik dagoela Frantziako muga berriro pasatzen duelarik". Bai Iparraldeko jendeak Nafarroa zer den ez dakite eta non ziren eta nor ziren beren benetako herritarrak eta nor atzerritarrak, 1957an.

Ipuinak balio du, erakusteko eta hori badakigu Errege Erreginek edozein sendagile mota deitzen zutela sendatuak izango ziren ezker. Batzuk ere hala nola Medizis-eko Katarinak, erdi sendatzaile eta erdi-sorgin zirenak zeuzkan Kortean. Daunatua zahar baten ardiesteak ez gaitu txunditzen, ez gaitu harritzen dakigularik zeinen bakunak diren haien erabilkak eta ez baitzuten ez zain ebakitze kaltegarririk ez sendagailurik ematen.

Aguerre familia horrez ipuin hori badago, nola lehenbizikoak fama lortu zuen XV. mendean Nafarroako erregiña matrail hezurra blokatua zuelarik, bere lekuan ipiñiz, Izura garai hartan Nafarroako zen eta izango frantses iraultzaraino, baina ezjakin batek, ipuinaz gezur bat montatu zuen. Izurako Aguerre bat barberoa zela hamazortzigarren mendean badakigu (ik. Thillaud medikuaren lana). Jakingarria da nola aspaldidanik - eta nafar Korteeekin izandako harremanen bidez, agian - Aguerre nobleto zirela eta hala dio Argentinako euskaldunen aldizkari batetik hartua Aguerre jaunak eman papearak. Artikuluak dio, XIV. gizaldiaz mintzo:

"Armas del Rey de Navarra y los Ricos Hombres del Reyno"

Por el Dr. Joaquin Asiain y Crespo

Artikulu luze honetan irakurtzen da:

"Partido judicial de Tafalla: una (casa de Aguerre) en la villa de Artajona, dimanada de la **Casa de Aguerre** o **Aguirre de la villa de Ostabat** (Izura) departa-

mento de los bajos pireneos y distrito de Monleón (sic.) Zuberoa, Francia.

Beraz etxe zaharra dugu Aguerre Izuran eta jendeek etxearen izena gaureraino edukiko dute.

Ez gaitu harritu behar sendatzaileak eta barberoak izatea Izura herri txikian, ez eta kalitatezko sendatzaileak ere, izan ere Izura, beste leku batean luzaroago aipatzen dugun gisa, Santiagoko bidean, hiru bide nagusien bil-lekua zen eta Erdi Harotik badakigu ospitale bat egin zela herri hortan erromesen, santiagozale gaixoen artatzeko. Leku horrek gure herri-sendagintzaren kalitatearekin zerikusia luke, baita, behar bada, Aguerre leinuaren jakintza ere.

Leinu hortaz dakigun gehiena da Nafarroako etxe-zentzuan Aguerre etxea badagoela, XIV. mendean Izuran gero, izen hortako barberua badago XVIII.m. leku berean. Izura, Santiagorako bide gurutze nagusia izanki ez da dudarik aspaldikoa dela **daunatua** lanpidearen zaletasuna Agerretarren artean.

Hezur zuzentzaileari galdeketa

Galdeketa hau idatzia neukan zuriune haundiekin eta halaxe herri-sendatzailearen egongela zain nengoela zetozen jendeak entzunaz beste batzuk gaineratu ditut, beste galderen bidez errealitateari hurbiltzeko.

1. Bere antzearen eta lanaren mugak? (Iarruminak barruko gaitzak osatzen ote dituzu)
2. Gorputzeko gizen soberakinaz axolatzen ote? Giharre urratu eta minberatu?
3. Anatomia ezagutza (zure arta horietan hezurrez kanpo, odolzaiñez, zainez zaintxuriez, giharre lokarriez kontu edukitzen ote duzu?)
4. Eta aintziñako daunatuek nola ezagutzen zuten gorputzaren barrua?
5. Zer behar zen ezaugarriak egiteko? Begiz ala ezkuz ala oroitzez? Kabaleak, abereak zabalik ikusteak lagundu ote zaitu?
6. Orduan ez zuten sekulan gizon baten barnea ikusi? Eta zuk gizon hilik, zabalik ikusi ote duzu?
7. Zer artatzen zen? eta zer artatzen duzue orain?
8. Ba al zekiten erradiografiarik gabe, zeihar ala luzean zenetz hauskura eta nola egiten zuten ezaugarrien eza-gutzeko?
9. Ezagutzen al zuten haurren barru hauskura ta hezur makurtzeak, okertzeak?
10. Ba al zekiten hezur bat berez hautsi zitekela kaskarik hartu gabe? Hezurren hauskortasuna ikus zezaketen? Eta hutsegiteak?
11. Nola onartuak, hartuak lagunduak, baztertuak ziren daunatuak mediku eta legezko sendagileen gandik? Nola lan egiten zuten?
12. Orain arrakasta daukazu, hori zure aitarekin ikasitik al dator ala eskolan ikasitakotik, Parisekotik?
13. Orain ikus ditzagun hauskurak banaka? Zauria zabalik zenean, lehen eta orain, zer egiten zuten eta dute daunatuek?
14. Zauri zerratua ta ubelduna zenean?
15. Hezur-gorputz edo hezurburuko hauskurak bereizten al zituzten? Eta nola?

16. Buruko hauskuretaz ez ziren arduratzen ala bai? Sudurra, aurpegia?
17. Bizkarrezurreko hauskurak?
18. Anka hezur, gerruntze ezurrari zer egin?
19. Oraindik hezurak zuzentzen dituzu?
20. Kontsulta bukatzean zure aitak eta zuk gaixoari aholkurik ematen ote zenuten eta duzute?
21. Ez al duzu lan egin ospitalean?
22. Hezurrez kanpo, erreumiak, ezurreria eta holakoak osatzen, sendatzen ote dituzu?
23. Eta beste aholhurik eskatzen duzutea?
24. Ikusi al duzu eta esan dezakezu, etxeetan zaurtua klinikara edo zuregana ekarri gabe zer ziren gaixoaren inguruko lehenerriak? Zer erabilka. Jendeek ba al dakite, orduan, zer egin? Zuek zer egiten zenuten?
25. Eta zer desberdintasun zegoen daunatuaren eta masai egileen artean?
26. Aitak unkonturik ba al zerabilen? Ikusi duzue zure inguruan holako erabiltzen?
27. Zuek daukazuten jakituri zaharra zer egingo zer bilakatu da? Ba al duzue ondokorik?
28. Lehen baino jende gutxiago al daukazu? Eta herri-sendatzaila bezala hartzen al zaituzte gaixoeak?
29. Zer ziren aintziñak zaurtuak zirenen ixtripuak?
30. Beraz orain ikusten dituzun ixtripuak zer eritzi daukazu? Zer motatako hauskurak, nori? Albisterik ba al daukazu zure gaixoez kanpo?
31. Ixtripu kausa bereziak ba ote dira andereetan? Zer motatako hauskurak?
32. Beste ixtripu kausarik? Bidetik eta etxetik kanpo zein?
33. Zer diozu zure ofizioaz. Ez al duzu garbairik egin duzula? Zuen antze hori aldatu egin ote da?
34. Zure dohain ta jakituriek zerenon gan, zure buruan, beren eragina izan ote dute laurogeita sei urteetara irixteko? Zer aholku emango zenidake, ta zeniguke?

2.3. ELKARRIZKETA

1. - **Bere antzearen eta ekintzeen mugak?**
Igelturik eta holakorik ez dugu egiten gero larrumin ta errailetako mimentako ez dugu deusik egiten ez eta aholkurik ematen ere. Orain ez eta lehen ere ez.
2. - **Gizen soberakin?**
Lehen ez ziren daunatuak hortaz arduratzen masaiarik egiten ez zutelako; ba nik geroago jendeen mehatzen laguntzen ikasi dut, masaiak eginaz.
Giharre urratu, minberatu?
Lehen daunatuak ez zituzten artatzen, guk bai orain horren gainetik masaia ikasi dugunok. Daunatuak zaharrak ezurrez baizik ez ziren arduratzen.
3. - **Anatomia ezagutza? (Zure arta horietan...)**
Lehen ikasi nituen odolzainen, zainen, zaintxurien, giharre ta lokarrien lekuak eta pasaiak, baina beti irakurtzen segitzen dut - ez daunatuak jakituri hobetzeko - baina masaiegile lanean beti jakinaren gainean izateko.
4. - **Eta aintziñako daunatuak nola ezagutzen zuten gorputzaren barnea?**

Leheneko daunatuak ez ziren gorputzaren barnea guztiaz axolatzen, bakarrik hezurtzaz, eta etxeetan hezurtsak bazituzten denek. Jatorrizko etxean, txipian, bakantzetan ibiltzen nintzenean etxeko sabaian bi ikusten nituen beti.

Gero..zerak..aitaxik..aitonak hezurak erakusten zizkidan, "to hau duk holako hezurra, eta arestian elkarrekin ikusi dugun andere horrek, hortxe hautsia dik hezurra" Etxondoan, berdin lehengusuak ikasi zuen daunatu baina ez zuen jarraiki ez baitzuen ganorik eta lehengusina alargun horren etxean ikusi ditut ez aspaldi bi hezur-hutsak.

5. - **Zer behar zen ezaugarriak egiteko? Begiz ala eskuz, ala oroitzez?**
Eskuz eskuz gehien bat, jentea mintzatu baino lehen, sobera so egin gabe, eskuarekin hukitzen zuten eta hola hatxemaiten.
6. - **Orduan ez zuten sekulan gizon baten barnea ikusi? Eta zuk gizon hilik ikusi al zenuen?**
Ez, ez ez eta beharrik ere. Nik bai Parisen autopsia egiten lagundu dut? Anatomia ikasteen hilak zabalik ikusi ditut, haiek ez, ez axolarik ere ez, zaharrek.
7. - **Hezurreko denak eta giharretako zorbait, zain tiratua, anburatua, eta beste, orai segurantzen gatik eta jendeak, berriz jaso nahi badu, klinika ta horietara lehenik bidali behar ditugu eta haien esanetara moldatu. Nahiz, hauskura haundirik ez denean medikura joan gabe gelditzen diren batzu.**
8. - **Ba al zakiten erradiorik gabe. Zeihar ala luzean zenetz hauskura?**
Bai, naski, erradiotan ez baita dena agertzen.
9. - **Ezagutzen al zuten haurren barnea hauskura ta hezur makurtzea, okertzea?**
Hori ez zekiten.
10. - **Ba al zekiten berez hautsi zitekela kaskarik gabe?**
Bai, eta gorputzadarraren itxuratik eta hukitzetik hezur baten ahulkeria eta hauskortasuna aurki zezaketen. Beren tresneria berri oroekin sendagile haundi horien artean ere hutsak eta hutsegileak ikusten dira naski, baina guri ez zaizkigu barkatzen eta fama txarrak berehala ito egiten zaitu, pratika galeraziz.
11. - **Nola onartuak, hartuak, lagunduak baztertuak ziren mediku eta legezko sendagileen gandik daunatuak?**
Batzuk onartzen zituzten - diplomarik gabe izan arren - baina ez hainbesteek. Ondo gogoratzen bazait 1914. urteren inguruan Heugas Mauleko medikuak aitari, Izurako osabari eta arrebei, hots leinuko daunatu guztiei hauzia jauki zieten. Donapaleuko Hauzitegian epaitua izan zen, eta guretarrek irabazi zuten oso abokatu ona zen Leon Berard-ek aldeztu baitzitzaien (bai gero Hezkuntzako Ministroa izango dena hemengoaren, biarnesa, Ministro 1922.an)
Bai, garai hartan Zuberoako daunatuak ziren aita gurea ta Izurako osaba, aldikatzen ziren asteartean Maulera joateko, Bidegain hotelean zen kontsultategia Badakizu non den Bidegain hotel hori? (Bai, bai, Donibane Garaziko bidean) Beti badago hotela.

12. - **Orain daukazu arrakasta hori zure aitarekin ikasitiko al dator ala eskolan ikasitakotik?**
Naski, aitarekin ikasia zait baliatzenenik; gero jendeen aldetik - eta porrotak daudelako - operazioaren bildurra badago.
13. - **Orain ikus ditzagun hauskurak banaka? Zauria zabalik zenenean, lehen eta orain zer zegiten daunatuak?**
Ez zituzten hunkitzen, ez eta hezurak zuzentzen.
14. - **Zauri zerratua ta ubelduna zenean?**
Hori bost axola berdin zuzentzen zuten, ez zuten jenteen zinkurrin ta odol maila kasurik egiten. Hunkitzen eta zuzentzen eta gero eriegi gaixoei artamendatzen ur bero gazi konpresaz hankura galeraz zezaten.
15. - **Hezur-gorputz edo hezurburuko hauskurak bereizten al zituzten?**
Bai, naski baina azkenean estiraturaz, eta indar eginaz hezurra bere lekuan ipintzen da eta gero herskailu trinko batekin atxikitzen edo ezpalak lau aldetarik loturik ipintzen. Ez genuen sekulan pisu tiratzailerik erabiltzen...gero gogorra egin dadin iguruki behar eta hortarako menbroa higi ez dadin ezpalekin lotzen.
16. - **Buruko hauskuretaz ez ziren arduratzen? Ala bai? Sudurra? Aurpegia?**
Ez hauskuretaz baina anburatuez, hala nola matrail hezurra bere lekutik ateratzen baldin bazen, baita matrail hautsia egiten zuten.
17. - **Bizkarrezurreko hauskurak?**
Bai, non ez zen paralisarik, hezur anburatua, bai, adibidez lepoko hezur batean zenean herskailu batekin tinkatuz. Bizkarrarentako eskuarekin erabiltzaten dira ezurrak.
18. - **"Anka-hezur", gerruntze ezurrari zer egin?**
Iliakoarentzat ez dago, geldirik, ekuru egotea baizik, hilabete. Batzutan halere hezur mubitze apur bat badago Iliako ertzean, pubisean. Errezena izter-hezuraren hauskura zen eta dakianarentako.
19. - **Oraindik hezurak zuzentzen dituzu?**
Bai oraindik ez digute debekatu eta beste sendagile horiek, askotan, ez dakite egiten eta.
20. - **Kontsulta bukatzean zure aitak eta zuk aholkurik ematen al zenuten?**
Bai, naski pausua aholkatzen, konpresak eta hola.
21. - **Ez al duzu lan egin ospitalean?**
Hemen ez soldautza garaian bai, arestian esan dizudan bezala. Gero bidali ninduten Bareges-eko uretara talde buruzagi bezala: hots masaiegille ginen, eta gauaz soldadoentzat kurak egiten, egunaz paisanuek egiten baitzituzten. Orain ez dago, eski eskola ipiñi dute..hauskura eskola bat, hots.
22. - **Hezurrez kanpo, errematizma ezurreria eta holakoez arduratzen zineztena?**
Gure leinuan ez, sekulan, lehen. Halere ez baita hor sendaketa eta sendatze osorik masaiekin doloreak txipitzen genizkien. Ariketa batzu edo aholku ematen genien.
23. - **Eta beste aholkurik eskatzen dizutea?**
Ez, ez diegu ematen ez zaigu gustatzen batere ematea, badakigu zoin diren gure mugak eta zertan gai garen. Jakinik ere ixilik.
24. - **Ikusi al duzu eta esan dezakezu, etxeetan zaurtua klinikara edo zuregana ekarri gabe zer ziren haien lehen urratsak? Zer erabilka? eta Jendeek ba al dakite zer egin?**
Bai, jakina konpresak ur bero gazituaz eta herskailuak (bendak) ipintzen atxikitzeko. Ez hemengo alde ez, gero aintziñako daunatuak eta nik ere lehenago ipintzen nituen menbroak lotzeko ezpalak. Lehen denak egiten genituen eta gainera uatarik ez zegoen ezker, estupa erabiltzen.
Ezpalen atxikirazteko aita zenak erretxina azpitik ipintzen zuen eta gainetik delako ezpalak, zotz luze zabal batzu, lau zotz besoarentzat.
Erretxina harekin loturak ondo eusten zion menbroari eta oraingo igeltsu horiek baino hobeto bixtan da, ezpalean artean airea kurrizten baita eta zauriak ikusten..berdin herskailuarekin larruazalak airea hartzen du.
Ezpalek lizarrez eginak ziren askotan, eta aitak ontzi txiki batean zeukan erretxiña, golarre zurezko golarre batekin hartzen eta larruan, larruaren gainean ezartzen gero ezpalak gaineti, hura zen erabilka ederra.
25. - **Eta zer desberdintasun zegoen daunatuak eta masai egileen artean?**
Eta eskolan hezur zuzentzen ez zela ikasten aitarekin egin nuela hori..Hezurren hunkitzea ere ez zen ikasten han.
26. - **Aitak unkonturik ba al zebilen, zerabilen?**
Ez, ez jentea ez zen orain bezain minbera, eta talkauts apur bat gainetik ipini eta kito, geuk Arjentinan baselinarekin. Orain zernahi pomada badago; bai mina haundiegi zenean lehen eta orain kanfor-olioa generabilan. Balsamurik ez genuen erabiltzen..etxeetan zerbait holako bazeukaten..
Aintziña emazte zahar sendazaleak etxez etxe zebiltzan holako saltzen hazkonara ta beste animalien milgorrak. Geuk ez dugu sekulan holakorik erabili.
(Oharra, Pantzart-en hitz berdintsuekin XVIII. mendeko andere saltzaileen aipamena badago:
Pantzart 256. Eta bestalde hainix presona dira abüsatzen
ema txar eli batek
beitirre kristel emaiten.
(Holako andere sendatzaileak galdu direla dirudi)
27. - **Zuek daukazuten jakituria zer egingen da? Ba al daukazue ondokorik?**
Ez da segeturik, eskua izan behar da, gero daukadan jakitatea semeegi irakatsi diet ez da galduko hala nola jakituri den hezur-zuzentze erabiltzak, gero eskua-ekin hunkitze eta ezagutze hori dohain hutsa da semeek hartu dutena ere.
28. - **Lehen baino jende gutxiago al daukate? Herri-sendatzaile ala fisioterapilari gisa hartzen zaituzte?**

Bai gutxiago alde batetik Segurantzaz eta klinikak badaude, besteetik nihaurk ere astean berritan baizik ez baitut lanik egiten. Hainitz halere klinikara gabe badatuz jakitera zer egin dezakedan, zer duten? Horiekin daunatuaren lana egin nezakean, bai zuzenka etortzen zaizkidanekin.

29. - **Zer ziren aintzina zaurtuak zirenen ixtripuak?**

Zaldiak, Batzu zalditik erortzen ziren, besteak zaldi batek trinkatu, bultzatuak, irauliak ziren, non ez ziren zaldi erori baten azpian hartuak izan zaldizkoak. Lehen asko zuhaitzetara igotzen ziren, ixardekitzera, adar moztu egitera, gaztainondo ta intxaur biltzeko zaflatazea..eta erortzen..berdin egiten ziren usotegietatik eta egiten dira oraindik.

Orain, geroago ta lasterrago ibili behar da: horrekin ixtripuak gehitzen, gero irakurtzen nuen kirolzaleen dopatzea, drogatzea..eta noraino iritxiko gara zion artikulua. Nire ustez erotegiak handitu beharko dira.

30. - **Beraz orain ikusten dituzun ixtripuak? Zer mota-tako hauskurak? nori? Albisterik ba al daukazu zure gaixoez kanpo?**

Automobilenak bai jakina, igandean.. Larunbata gauean apur bat lokartua, agian edana ere dantzaldi batetik zetorren eta aldapa baten behera amildu da eta akromio-klabikulako zainartatu bat zeukan, bai goizeko hiruretan zen hori. Zorionez bakarrik zegoen beribilean, askotan gertatzen da lauzpabost lagun daudela eta orduan hilak badira.

Begira "Sud-Ouest" egunkarian, eskualdean asteburuan bost hil izan direla idatzia zegoen beribilekin. Laborantzako tresneriarekin ere gertatzen da, baina bideetan baino askoz gutxiago..zergatik txundituarena egin..eta gero abiadura mugatu behar dela, baina horren mugatzeko zergatik ez ipiñi, galga automatikoa..eta zergatik egiten dituzte, berrehun kilometrotan ibili behar diren berebela, gero 110. km.tan mugatzeko..bururik ez daukate.

31. - **Ixtripuen kausak bereziak ote andereetan?**

Bai, jarleku batetik, zubi batetik erortzeak kargaturik eta tratatzea, bestelan hauskura berdinak dira bietan, andere ta gizonetan.

32. - **Beste ixtripu kausarik? Bidetik eta etxetik kanpo zein?**

Kirol guztiak, rugby, eskia - lehen orkatila zen hautsi egiten gehienik, orain zango ezurak ere tibia ta perone, oinetako mota berrikoekin - gero belauna elurrean. meniskea berriz kirolzaleen etsai haundia..orain omen laser edo holako batekin, ireki gabe puxkatzen da eta zulo txiki batetik txurgatuz kentzen..puntu batez josi ta kito.

33. - **Zer diozu zure ofizioaz ez al duzu garbairik egin duzulako? Zuen antze hori aldatu egin ote da?**

Bai pozik bizitu dut maite nuelako. Lehen gauaz ere esnatzen ginduzten. Orain, adinaren gatik, gutxiago dagit baina pasioa daukat, maite dut erdiestea, lor-tea.

Gazteak berriz, hala nola semeak, larunbata eta igandeetan alde egiten dute paseura, berdin Baionakoa, beren ordutik kanpo ez dagite lanik geuk egiten

genuen moduan..orain itsasora.. Ni ere halaxen nabil, baina zaldia zahartu da luzarazi behar dut eta emeki ibili, hortarako ez dut lehen bezalakorik egiten.

34. - **Zure dohain ta jakituriek zuhaurtan, zure buruan beren eragina izan dute, 86. urteetara irixteko? Zer aholku emango zenidake? ta zeniguke?**

Gaixoa! bakoitzak badu bere bizi epea, sortzez sendotasunez, gogortasunez edo zailtasunez baina batzuei ezer egiten ez duenak, besteari kalte. Begira! nire kasuan neurritan denetarik jaten, edaten eta erretzen dut; ez dut bost zigarretaz goiti pipatzen, botoilla bat ardo egunean eta ez afari haundirik egiten astero, ez egunero. Ikusten duzun bezala nago.

(Gure oharra: Bai, lerden, mehe eta zainpil dago Aguerre jauna eta oroimen ona du; urtegunak, adina gogoan ez ditu bere hitzak bilatzen, eta argiki hitzegiten du, nahiz dakian euskaraz, gehien bat frantsesez erantzun du, prestijiozko mintzaira eta bere ikasketa eta eskolakoa izanki, hola bere jakituria sakonkiago, zehatzago, hobekiago azaldu digu)

2.4. ANALISIA

Mende honen hasieran 1901.an sortutako Aguerre jaunaren ekarpenaren baloratzeko, 3 garai ikusi behar ditugu lehe-nean ia ez zen jendea - segurantzarik gabez - sendagile ta barberuen gana joaten, sendaraztea eta, orduan, Aguerre senide, aurrice, guztiak daunatua ziren, hiru anai eta bi arreba; bigarren garaian, hiru anaiak Arjentinara joan ziren azken garaian gure berriemailea itzuli zen eta masaiagile diplomaren babespean berriz eman zen bi lanetara, maiasaia eta hezur zuzentzea.

Denborarekin Aguerretarrak deseuskalduntzen dira nahiz gazteenak, fisioterapiaren estalpean dabilzanak, Maulen, Atarratzen eta Baionan lan egiten duten, Euskal Herriko urrundu zituen sendagileen aiherkunde eta gorrotoek.

Herri-sendatzaile mota horren jakituria aztertzean aldaketa nagusi bat dakusagu, aintziña hezur-hutsa, eskeletoa etxen baldin bazuten, gero Augustok behintzat autopsiak ikusi zituen eta anatomia klasikoa ikasi. Bestalde, nahiz aintziñako ezku-ezaguketa egin jakiteko zer hauskura mota den, zuzendu baino lehen, gaur erradiografiez baliatzen dira ia beti. Gero gure daunatuak, sendagile gehienek baino hobeki dakite hezurzen zuzentzen eta hori herriak badaki, eta herri-sendatzailetzat daduzka.

Hezurra zuzentzen denean ez zaio ubelari, ospelari kasurik egiten ez eta gaixoen oihuei; zuzendu ondoren beti ordu baita odol mailen artatzeko. Tiratuz indar eginaz eskuiekin ziren bi hezur muturrak, buruz buru ipintzen, gero mina bendatzen (hersatzen) eta inguruan lau aldetarik "ezpalez" lotzen, hezurra gogortu arte mubi ez zedin.

Gure herri-sendatzaileari irudi zaio gaurko igeltsuak baino sanoago zela aita zenak erabiltzen zuen erretxiña, eta xotilak harek egiten zituen leizar zotzak edo latak. Ezen azalean zuzenki ipintzen baitzuen erretxiña eta gainetik latak. Gero minen goxatzeko bakarrik, talkautsa baselina, ta kanforolioak erabiltzen zituzten.

Jakitori horren haundiena semei erakatsi diete apur bat berritua, baina oinarriz berdina aspaldiko mendeetan; bada-

ki bestalde fisioterapiariak orain, batzutan, ikasten dutela hezur-zuzentzea baina ez beti, ez eta kirurgiariek ere.

Gaurko ixtripuez oso kezkatu da eta bere analisia zehatza da, bere bezeroen, edo gaixoen arauera egiten badu ere - ezen gazteak ere etortzen baitira ikustera eta ez bakarrik gizonak andrazkoak ere eta ez bakarrik baserritarrak kaletar asko ere - beraz lehenik berebil ixtripuak ipintzen ditu lasterregi (azkarregi) ibiltzen direlako jendeak, bereziki larunbateko dantzaldi-edanalditatik sartzen diren gazteak. Prentsatik eta bere eskarmentuetatik ateratzen ditu emaitza horiek. Andere ta hurrekin etxeko ixtripuak dira nagusi.

Kirolzaleen eta bereiziki Rugby-zaleen ixtripuak ondo ezagutzen ditu, belaunetatik hasita, anka ta oin ezurretako hauskura mota guztiak, nahiz meniskentzat ebakuntza gabe laser-ez egiten den, gehienetan gaixoa daunatuaren gana doa ebakuntzaren beldurrez ere, daunatuak dionez. Bukatzen du esanaz, alde batetik ere garaian gau et'egun hortan zebiltzala eta daunatua seme gazteak ez eta azkenik bere jakituriak ondo zahartzen lagundu duela.

2.5. ONDORIOAK

Daunatuaren ofizioa ez dirudi Iparraldean galtzera doanik nahiz inor ez den izen horrekin agertuko, baina fisioterapia-aren soineko azpian. Jakituri horrek ziurrik badu zerbaiteko aintziñako barberuek ikasitako erabilkekin eta beste lekutan aski zehatzki erakutsi dugun herri-oroimenean geratu den jatorriarekin, alegia Erdi-Harora ezker Agerretarrak lizuran egon direla hezur zuzentzen eta eskarmentuekin beren jakitatea hobetzen, eta ondokei ematen Augustok semeekin egin duen bezala: sailkapen horma zaletasunei gustatu ala ez hemen dakusagu ez dela herri-sendatzaille ta akademia-sendatzaileren arteko mugarik; gure kasuan herri-sendatzailleak dira fisioterapiari bilakutzen, baina badakigu sendagile batzu Frantzia dabilzala "daunatu" esku trebetasun ta jakituriaren ikasten eta erabiltzen.

Gure Zuberoako familian eta orain 50-70 urte dituzten gure lehengusuen artean lau badira Agerretarren eskutik igaro direnak, eta ondo irten egin direla ez baitute ez ondokorik ez porrotik ezagutu beren sendabidean. Orain hauskura bat sumatzen denean, askok Agerre-ren Zuberoako semeari dei egiten diote, baita erremedioek sendatzen ez dituzten min batzuentzat ere, hala nola erreumiak eta bizkarminak, eta hauskura ondoko biureskuratzetan. Lanaren ez luzatzeko ez gara Agerre-ren semeen gana ibili galdezka eta, aitzitik diona ta gure herritarrek kondatzen digutena aski zaizkigu, jadanik semearen esku artetik bi askazi gazteago igaro baitira.

Kondairan "daunatu" aipamen bereizirik ez dakusagu De Lancre-ren gan XVII. mendean, nahiz beharbada "saludadore" izenpean epaitzen dituen horiek halakoak izan. Francisque Michel-ek ordea, 1857.an herri-sendatzaille sendagileen arteko erlazioen hari-burua ematen digu hobeki zehaztuz eta gaudituz azti-sendatzailleak sorginez bereiziz

"Sorginak, diotenez, nahi duten itxura har dezakete, haizearen lasterrez urrun-urrunera joan, beren gorputza gantzugailu batez igurtziz. Naski **azti** delakoan alderantziz gaizkiegileak dira, lehenek sendatzeko dohaina daukatelako **enpiriko** kente bat da (aztiak) eta fakultate sendagileek baino arrakasta gehiago daukatenak".

Bi gauza ohar genezake, aipatzen den gantzugailu hori, Gaskoniako Tolosa Medikuntza fakultate laborategiak konpondu zuela, aintzinako errezetaz eta L.S.D.aren gisa, airean hegalez ibiltzeko ilusioa ematen duela konturatu ere, baina sorginen hau bazter utzita, ikusten dugu herri-sendatzaille (berak azti dio) delakoak XIX. mende erdian oso lanpetuak zirela Euskal Herrian, eta jarraitzen du:

"Euskal Herriko sorginen Erregea edo bederen holkotzat daukatena, aztia da; Donibane Garazi ondoan Donazaharren bizi den gizon zaharra da."

Hemen gainera genezake beti Santiagorako bide ertzean gaudela eta hortik hurbil dagoela gaur ere Jutsiko "Jinko Txipia" gaitz guztiak sendatzen dituenak. Hona zer dion Fr. Michel-ek gizon hortaz:

"Armada mediku baten seme eta holako baten anaia da, ta berak sekulan sendakuntzazko ikasketak egin gabe sendatzen ardienez eta diru lorpenez ederto, praktikatzen du.

Nahiz ez duen ikasketarik egin, herri-sendatzaille horrek sendeak mediku ditu, eta agian, Fr. Michel-ek gehiago galdetu bazuen, holako "daunatua" kastakoak ziren aurride guztiak. Gure gizonaren lorpenak kondatzen dizkigu laburzki:

"Behin baino gehiagotan "benetan sorgin" ez den herri-sendatzailleak, erabat sendagilek utzitako gaixoak sendatu ditu; horrela errege bat haina zoriontsua da, profeta baino ospetsuagoa, ezen Donazaharren fama haundia baldin badauka, ospea herriaren muge-tarino irixten baitzaio. Jendea urrundik aholku bila datorkio, eta zernahi gauzetaz erantzun dezake".

(Fr. Michel *Le Pays Basque*, Paris 1857, 151 orr.)

Bai, hemen ere, gaurko Jutsiko "Jinko Txipia" petrikillo delakoaren ospea dakusagu, baina "guzti-sendatzaille" horiek ez genezazke "daunatu" sailean sar, ezen azkenean hezur-zuzentzailea fisioterapiari zahar mota bat baita.

3. SAINT JEAN INCHAUSPE, "Mehatz" "txingola sendatzaille"

Saint Jean Inchauspe, "Mehatze" Undüreinekoa

Azal-min Larvii-min sendatzaille



Saint Jean Inchauspe "Mehatz"